

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

**294/2016 Foru Agindua, azaroaren 22koa, onartzen duena 228/2016 Foru Aginduak ezarritako baldintzak betetzea (228/2016 Foru Agindua, irailaren 28koa, behin betiko onartu zuena, zenbait baldintzarekin, Donemiliaga udalerriko planeamenduko arau subsidiarioen 1. aldaketa puntualaren espedientea**

#### I. AURREKARIAK

Lehena. Irailaren 28ko 228/2016 Foru Aginduaren bidez behin betiko onartu zen, zenbait baldintzarekin, Donemiliagako udalerriko planeamenduko arau subsidiarioen 1. aldaketaren espedientea.

Bigarrena. 228/2016 Foru Aginduak, iritzirik baldintza jakin batzuk ez zirela funtsezkoak, ezarri zuen ezen, behin zuzendurik, Foru Aldundiari aurkeztu behar zitzaiola espedientea, berriro ere jendaurrean jarri beharrik gabe, behin betiko onartzearen, bete beharrekotzat jotzearen eta egin beharreko izapideak egin eta argitaratzearen.

Hirugarrena. 2016ko urriaren 31n eman zitzaion sarrera Arabako Foru Aldundiaren erregistroan espedientearen testu bateginari.

#### II. OINARRIAK

Aurkeztutako agiriak aztertu dira, eta egiaztatu da bete direla foru agindu horretan ezarritako baldintzak.

Horregatik, dagozkidan ahalmenak erabiliz, honako hau

#### XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Betetzat jotzea Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatuaren irailaren 28ko 228/2016 Foru Aginduan ezarritako baldintzak, zeinaren bidez onartu baitzen behin betiko Donemiliagako udalerriko planeamenduko arau subsidiarioen 1. aldaketaren espedientea.

Bigarrena. Ebazpen hau ALHAOn argitaratzea, hirigintza araudiarekin batera.

Hirugarrena. Ebazpen honek administrazio bidea amaitzen du. Beraren aurka, administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da zuzenean Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzietarako salan; horretarako, bi hileko epea izango da ebazpena jakinarazi edo argitaratu ondoko egunetik aurrera.

Gasteiz, 2016ko azaroaren 22a

*Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatua*

*JOSEAN GALERA CARRILLO*